

**HAU DOK! HAU DOK! HAU DOK GANORIA!  
ERREGE ASKOK GURA LEUKIEK  
GURE UMORIA!**

**1.**

Euskaldunak gara ta  
euskaldun nahi bizi,  
beste guztiak onak dirala  
geuria nagusi.

**2.**

Baserritarrak gara  
ezin da ukatu,  
jende euskaldun ta fededuna  
horixe gara gu.

**3.**

Ba dakigu lanian  
ta ondo bizitzen,  
karrera barik ikasi dogu  
munduan ibiltzen.

**4.**

Famili bat hazita  
orain gozau daigun,  
Jubiladuok, ondo ibili,  
Jaungoikoa lagun.

**5.**

Ondo ibili eta  
bartzarrak ikusi,  
hainbeste urtez lan egin eta  
ez dago itxusi.

**6.**

Azken batian ona  
jubilazinoa;  
aupa mutillak! Hauxe bai dala  
bedeinkazinoa!

**7.**

Ondorengoentzat da  
gure erentzia;  
gure ondoren, fede, ohitura,  
esperientzia.

**8.**

Indarrak beherantza ta  
gogoa bizirik,  
"Bizian gora" jokatu daigun  
ba dogu astirik.

**9.**

Hartu genduan dana  
hor dogu emona,  
seme alabak ondo ikustea  
gure zoriona.

**10.**

Urte asko ta onak  
bota bizitzari,  
eta urteai bota gogotik  
bizitza ugari.

**11.**

Asko bizi ondoren  
gehiago bizi nahi,  
neke lan asko izan dogu ta  
gaur egin daigun jai.

**12.**

Mundu barria ei da  
etorri jakuna,  
barri nahiz zaharra gizon izan ta  
ez galdu zentzuna.

**13.**

Gazteak gazte dira  
eta gu nagusi,  
guk be ba doguz eskubideak  
eta ez galtzen itzi.

**14.**

Agur ta ondo bizi  
Jubiladu maitel!  
Alkarren lagun behar dogu ta  
hurreratu zaite!

A. Martzel